

VASCONGADO.—Euskara plazaratuko bada «vascongado»-en beharra dugu, zenbaitentzat gezurra badirudi ere.

Maizegi edo geroago eta maizago erabiltzen da euskaldunon artean «vascongado» (inoiz «baskongado» idatziz) mespretsuki, erdizkako euskaldun edo *aberriano* kutsuko «euzkotarra»ren berdintsura parekaturik, edo gauza berdina balitz bezala. Baina, irakurleak jakin beza Erdi-Arotik gure egunok arte «romanzado» eta «castellanizado» ez zenarentzat erabilia dela. Beraz, erdaldundu gabe zen euskaldun jatorrarentzat erabilia da «vascongado» izena. Vascongado = euskaldun, hori du bere zentzua.

Izen hori, euskalduna gutietsi nahirik ere erabilia da, baina bere funtsean, erdaldunak euskaldunei (euskara-dunei; hau da, euskaraz mintzatzen zirenei) jarria da.

Herri bakoitzak bere historia du, eta abertzale den edonork zerbait jakin behar du bere herriaren historiaz, edo gutienik ere historiaz zerbait dakitenei entzuten, maite duten herriaren alde zentzuz jokatu nahi baldin badute. Esloganak eta esaldi hutsak barreiatzeak, ez dago dudarik, bere indarra dute, onerarako edo txarrerako. Eta, inoiz, ondo egin beharrez kalte egin genezake. Hori da azken aldi hontan zenbaiten partetik «vascongado» izenez jazotzen zaiguna ere, erabilkera bere senetik atereaz on baino kalte gehiago egiteko eraz azaldu.

Ustekabez aldatze horrek ez ote digu euskaldunoi, eta bereziki euskaltzaleoi, kalte egiten? Zeren, «vascongado» euskaldunok erdaldunegandik bereizteko izenlagun kalifikatzailea da. Eta, «romanzado» edo «castellanizado» direlakoek euskaldunontzat erabiltzen duten adjetiboa denez Euskal Herri guzira «vascongados» bete beharra dugu aberria euskaldunduko badugu.

* * *